



## INFORMAZIO BATZORDEETAN HERRITARREN PARTE-HARTZEA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDU ORGANIKOA

### HITZAURREA

Konstituzioak 9.2 artikuluari jarraituz, botere publikoek betebeharra dute politikan, ekonomian, kulturean zein gizartean herritar guztien parte-hartzea errazteko. Agindu hori Konstituzioaren beraren 23. artikuluan berresten da, herritar guztiei bermatzen baitie, zuzenean edo ordezkarien bidez, gai publikoetan parte hartzeko eskubidea. Era berean, Toki araubidearen oinarrien Legeak 69.1 artikuluan ezartzen duenez, toki korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dute beren jardueri buruz eta herriko kontuetan herritar guztien parte-hartzea bultzatuko dute.

Beraz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 4.1 artikuluan udalei aitortzen dien beren burua antolatzeko ahalaz baliatuz, Zigoitiko Udalak udal erregelamendu organiko bat egingo du, informazio batzordeetako herritarren parte-hartzea arautzeko.

Erregelamendu hau indarrean jartzeak aldaketak ekarriko ditu korporazioaren egungo jardunean. Horrexegatik, erregelamendu honek saio kutsu bat izango du eta, egoki irizten denean, edukia berraztertuko zaio, jarduteko era berrietan izaten dugun eskarmentuak adierazten diguna kontuan hartuta.

### 1. artikulua.- Erregelamenduaren xedea.

1. Erregelamendu honen xedea da ahalbidetzea, erraztea eta arautzea herritarren parte-hartzea informazio batzordeetan.

2. Herritar guztiek dute eskubidea udal eskumeneko gai publikoen kudeaketan zuzenean edo elkarleen bidez esku hartzeko, informazio batzordeetan parte hartuta.

### 2. artikulua.- Informazio batzordeetara publiko gisa joatea.

1. Informazio batzordeetako bilkurak publikoak dira. Dena den, sekretuak izan daitezke Konstituzioaren 18.1 artikuluan aipatutako herritarren oinarritzko eskubideari eragin diezaioketen gai batzuen eztabaida eta bozketa, gehiengo osoz hala erabakitzen denean apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.1 xedatutakoari jarraituz.

## REGLAMENTO ORGÁNICO QUE REGULA LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA EN LAS COMISIONES INFORMATIVAS

### PREÁMBULO

La Constitución, en su art. 9.2 obliga a los poderes públicos a facilitar la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social, mandato que se ve reforzado en el art. 23 del mismo Texto Constitucional al garantizar a los ciudadanos y ciudadanas el derecho a participar en los asuntos públicos, directamente o por medio de representantes. Igualmente, el artículo 69.1 de la Ley de Bases de Régimen Local establece que las Corporaciones Locales facilitarán la más amplia información sobre su actividad y la participación de todos los ciudadanos y ciudadanas en la vida local.

Por lo tanto, y en virtud de la potestad de autoorganización reconocida a los municipios en el artículo 4.1a de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local el Ayuntamiento de Zigoitia procede a dotarse de un Reglamento Orgánico Municipal que regule la participación ciudadana en las Comisiones Informativas.

La entrada en vigor de este reglamento va a traer cambios en el funcionamiento actual de la Corporación. Es por eso que, a tenor de lo que la experiencia en los nuevos modos de funcionamiento nos vaya indicando, este reglamento tiene un cierto carácter experimental y será revisado su contenido cuando se estime oportuno.

### Artículo 1.- Objeto del Reglamento.

1. Este reglamento tiene por objeto posibilitar, facilitar y regular la participación ciudadana en las Comisiones Informativas.

2. Todos los vecinos y vecinas tienen derecho a intervenir directamente o a través de sus asociaciones en la gestión de los asuntos públicos de competencia municipal mediante su participación en las Comisiones Informativas.

### Artículo 2.- Asistencia de público a las Comisiones Informativas.

1. Las sesiones de las Comisiones Informativas son públicas. No obstante, podrán ser secretos el debate y votación de aquellos asuntos que puedan afectar al derecho fundamental de los ciudadanos y ciudadanas a que se refiere el artículo 18.1 de la Constitución, cuando así se acuerde por mayoría absoluta conforme los establecido en el artículo 70.1 de



2. Horien aktak ez dira publikoak izango.

**3. artikulua.- Informazio batzordeen deialdia.**

Informazio batzordeen bilkuretako deialdiak eta gai zerrendak udaleko iragarki taulan argitaratuko dira.

**4. artikulua.- Jendeak informazio batzordeetan parte hartzea.**

1. Gai zerrendako puntu bakoitzaren inguruko eztabaida amaituta, eta alkateak baimena eman ondoren, publikoko jendeak eztabaidatutako gaiari buruzko iritzia eman ahal izango du, alkateak adierazitako denbora tartean, gai zerrendako proposamenaren bozketa egin baino lehen.

2. Bertaratutako publikoak ez du botoa emateko eskubiderik.

3. Batzordearen bilkura bukatu ondoren, alkateak txanda eman diezaieke bertaratutakoei udal interesekoak diren gai jakin batzuei buruz eskaerak eta galderak egin ditzaten. Alkateari dagokio txandak eman, antolatu eta kentzea.

**5. artikulua.-**

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak informazio batzordeen funtzionamenduari buruz jasotzen dituen xedapenak aplikatuko dira erregelamendu honek xedatzen ez duen guztirako.

la Ley 7/1985, de 2 de abril.

2. No tendrán carácter público las actas de las mismas.

**Artículo 3.- Convocatoria de las Comisiones Informativas.**

Las convocatorias y órdenes del día de las sesiones de las Comisiones Informativas se harán públicas en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.

**Artículo 4.- Intervención del público en las Comisiones Informativas.**

1. Finalizado el debate de cada punto del orden del día entre los integrantes de la comisión, y con la previa autorización del Alcalde, las personas del público podrán exponer su parecer sobre el punto tratado durante el tiempo que señale el Alcalde, con anterioridad a la votación de la propuesta incluida en el orden del día.

2. El público asistente no tiene derecho a voto.

3. Terminada la sesión de la comisión, el Alcalde puede establecer un turno de ruegos y preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este turno.

**Artículo 5.-**

En todo lo no previsto en este Reglamento serán de aplicación las disposiciones sobre funcionamiento de las Comisiones Informativas recogidas en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado mediante Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre de 1986.